

2024KO ABENDUAREN 16KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lau abenduaren hamaseian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu dira 2024ko azaroaren 11n eta azaroaren 26an egindako ohiko bilkuretako aktak, eta azaroaren 26ko aktako idazketako akats bat zuzendu ondoren, bi aktak onartu dira.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 89 zenbakidun zerrenda LAUROGEITA HAMABOST MILA BERREHUN ETA HOGETA LAU euro ETA BERROGEITA SEI zentimokoa (95.224,46 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- GOIEKI, S.A.-RI 2024KO UDAL EKARPENA ATEAK IREKI PROGRAMARAKO.-

Goierriko Garapen Agentzia S.A.k (GOIEKI) bere partaideak diren Udalek 2024ko Ateak ireki proiekturako egin beharreko ekarpenak planteatu ditu.

Ekarpenak Udal bakoitzak dituen biztanleen arabera dira eta Lazkaori honako ekarpena dagokio:

- Ateak ireki proiekturako	1.608,01 €.
----------------------------	-------------

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, GOIEKIr 2024ko ekarpen hau egitea onartu du aho batez.

IV.- ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEARI 2023KO ETA 2024KO UDAL EKARPENAK.-

Enirio Aralar mankomunitateak 2023 eta 2024ko Udal ekarpenen proposamena egin digu. Izan ere, 2023an ez zen ekarpenik egin.

Lazkaoko Udalari dagozkion urteko ekarpenak ondorengoak dira:

- 2023 urtekoa 14.873,40 €.
- 2024 urtekoa 16.227,93 €.

Tokiko gobernu-batzarrak aho batez onartu ditu ekarpen hauek.

V.- ZUBIZKITZA AUZOKO 2. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 4. OBRA-EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

Zubizkitza auzoko 2. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen laugarren obra egiaztatzea eta azkena egin dute. Laugarren obra egiaztatze honen zenbatekoa HOGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMAR euro eta BERROGEITA LAU zentimokoa (23.230,44 €) gehi B.E.Z.ari dagokion LAU MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI euro eta HOGEITA HEMERETZI zentimokoa (4.878,39 €) da, guztira HOGEITA ZORTZI MILA EHUN ETA ZORTZI euro eta LAUROGEITA HIRU zentimokoa (28.108,83 €).

Lanak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentziorekin (EH Bildu), laugarren obra egiaztatze hau onartu egin du.

VI.- 2023KO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN ALOKAIUARENGATIKO HOBARRIA.-

Tokiko Gobernu Batzardeak 2024ko irailaren 2an egin zuen bilkuran, 2023ko Ondasun Higiezin gainerako Zergan %50eko hobaria aplikatzea onartu zuen etxebizitza alokatuta duten eta horretarako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonen, horretarako irekitako epean dagokion eskaera egin ondoren.

Gaurko batzordean aurkeztu den proposamenean, beste pertsona bati HIRUROGEITA ZAZPI euro eta BERROGEITA HAMABI zentimo (67,52 €) hobaritzea proposatu da, bere espedientean jasotako zenbatekoaren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hobari hau onartzea erabaki du.

Hobari hau sarreraren aurrekontuko 2 112.02.000.00 partida gutxituz egingo da.

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 24-11-04 zenbakidun esped.: 2024ko azaroaren 21etik etxeko laguntza zerbitzua astean 2 orduetik 20 ordura handitzea, onuradunaren osasun egoera okertu delako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-11 zenbakidun esped.: 2024ko azaroaren 20tik aurrera etxeko laguntza zerbitzua astean 8 orduetik 6 ordura murriztea, onuradunak eskatuta. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-18 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2024ko azaroaren 27tik aurrera, astean bi orduz, etxeko garbiketan laguntzeko eta abenduaren 9tik aurrera astean 5 egunez eta eguneko ordubetez handitzea, ospitaleratze baten ondoren laguntza gehiago beharko dutelako. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 24-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntzari baja ematea urritik, diru-sarreraren zenbatekoan igoera izan duelako.
- 2024ko abenduaren 31 arte indarrean dauden ondorengo laguntzak 2025eko apirila arte luzatzea:

ESPEDIENTE ZBK	KONTZEPTUA	DIRULAGUNTZA URTARRILA-APIRILA
135	Mantenimendua	576 €
670	Mantenimendua	355,20 €
09-01-007	Mantenimendua	600 €
14-01-005	Mantenimendua	356 €
16-01-005	Mantenimendua	600 €
18-01-004	Mantenimendua	600 €
18-01-003	Mantenimendua	370 €
21-01-009	Mantenimendua	552 €
22-01-001	Mantenimendua	372 €
22-01-007	Mantenimendua	600 €
22-01-010	Alokairua	1.000 €
	Mantenimendua	370 €
22-01-016	Mantenimendua	207 €
23-01-001	Mantenimendua	370 €
23-01-004	Mantenimendua	594 €
23-01-005	Alokairua	780 €
	Mantenimendua	468 €

23-01-006	Mantenimendua	520 €
22-01-015	Alokairua	940 €
	Mantenimendua	376 €
23-01-016	Mantenimendua	600 €
24-01-002	Mantenimendua	388 €
24-01-003	Mantenimendua	468 €
23-01-007	Alokairua	760 €
	Mantenimendua	456 €
23-01-017	Mantenimendua	480 €
24-01-008	Alokairua	1.000 €
	Mantenimendua	600 €
24-01-009	Mantenimendua	292 €

Familia laguntzak.-

- 24-15-01 zenbakidun esped.: Hasierako ikerketa eta ebaluazio txostena egitea. Hasiera batean ikerketa burutuko zuen elkarteak izan behar zuen, baina azkenean Pausoz Pauso elkarteak egingo du. Horretarako aurrekontua 1.430 €-koa izatetik, 1.080 €-koa izatera pasa da.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko bazkidetza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 24-23-02 zenbakidun esped.: semearen igeriketa ikastaroa ordaintzeko 75,06 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

Menpekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen estimulazio/errehabilitaziorako laguntzak.-

- 24-20-01 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 1.000 €-ko dirulaguntza ematea.
- 24-20-02 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 1.000 €-ko dirulaguntza ematea.
- 24-20-03 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 972 €-ko dirulaguntza ematea.
- 24-20-04 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 440 €-ko dirulaguntza ematea.
- 24-20-05 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 568,25 €-ko dirulaguntza ematea.
- 24-20-06 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 1.000 €-ko dirulaguntza ematea.

- 24-20-07 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 300 €-ko diru laguntza ematea.
- 24-20-08 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 1.000 €-ko diru laguntza ematea.
- 24-20-09 zenbakidun esped.: 2023 urtean errehabilitazio edo estimulazio tratamenduan izandako gasturako 1.000 €-ko diru laguntza ematea.

Orobione jubilatu eta pentsiodun elkarteari dirulaguntza.-

Orobione jubilatu eta pentsiodunen elkarteari 2024. urterako dirulaguntzaren bigarren zatia, hau da, 9.613,45 €-ko dirulaguntza ematea, egin dituzten ekintza eta oinarriko egituraren funtzionamendurako. Dirulaguntza honek, 2024ko urtarrietik ekainera memoria tailerra ordaintzeko 5.424,28 €-ko dirulaguntza barne hartzen du.

Entitateei dirulaguntza.-

2024. urteko dirulaguntzak entitateei honela ematea:

- Gizakia Helburu: 1.100 €
- Azki, Emakumeen Taldea: 1.000 €
- Lazkaoko Karitas: 2.000 €
- Lazkaoko Talde Feminista: 1.000 €
- Lazkaoko Odol Emaileak: 1.240 €

VIII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 340 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

IX.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Felipe Altuna Alkaiagari.-

2024ko urriaren 18an, Beneditarren fundazioko Juan Joxe Agirrerri egindako omenaldian parte hartzeagatik eta egindako oparien gastuei aurre egiteko, 180 €-ko dirulaguntza ematea.

- Suthai Taldeari.-

2024rako aurreikusitako dirulaguntzaren % 40, hau da 2.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren 1 481.06.334.00 partidatik egingo da.

- Lazkaoko Musika Bandari.-

2024ko udaberriko bandaren kontzertua antolatzeagatik, 1.300 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren 1 481.07.334.00 partidatik egingo da.

X.- GAZTERIA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Gazteria Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

- Zagupe Astialdi taldeari.-

Talde honek eta Udalak izenpetu duten hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, aurreikusi zen 5.000 €-ko dirulaguntzaren %40, hau da, 2.000 € ematea.

Diru laguntza 2024ko aurrekontuaren 481.01.337.20 partidatik ordainduko da.

XI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei laugarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	LAGUNTZA
RAQUEL GARCIA MENDOZA (PRANAQI)	25 €	6,25

MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	6.325 €	1.581,25
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	200 €	50,00
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	830 €	207,50
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	585 €	146,25
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	170 €	42,50
RICARDO IZQUIERDO SANTAMARIA	30 €	7,50
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	505 €	126,25
PEDRO PEREIRO FARMAZIA	240 €	60,00
ERROTAUNDI SL	140 €	35,00
GERRIKO SL	90 €	22,50
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	50 €	12,50
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	355 €	88,75
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	1.315 €	328,75
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	1.375 €	343,75
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBOLOI)	1.480 €	370,00
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	1.165 €	291,25
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	3.485 €	871,25
ARTANO ETA LORENA SL	2.300 €	575,00
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.220 €	555,00
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	275 €	68,75
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	235 €	58,75
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	45 €	11,25
PRECOCINADOS MAITTE SL	445 €	111,25
MIGUEL MARI ARAKAMA (HARATEGIA)	955 €	238,75
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	155 €	38,75
AMAIA SORAZU (EKILORE)	70 €	17,50
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	30 €	7,50
Mª CARMEN AGUADO (AGUADO ESTANKOA)	1.795 €	448,75
ANGEL CIEREZ (ZERIK ILEAPAINDEGIA)	45 €	11,25
ALAITZ ZUBIZARRETA OTAEGI (MAGALA)	245 €	61,25
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	780 €	195,00
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	40 €	10,00
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	665 €	166,25
MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR)	5 €	1,25
DAMASO LOPEZ (PELU. DAMA)	85 €	21,25
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	220 €	55,00
GOLOPAR SL	15 €	3,75
URTEAGA PENTXUAK SL	425 €	106,25
IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA)	205 €	51,25
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	965 €	241,25
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	80 €	20,00
AGURTZANE DE MIGUEL.. (KOXKOR)	30 €	7,50
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	585 €	146,25
KEMEN	70 €	17,50

ALAINE ALBISU LARRAÑAGA	60 €	15,00
JOSE ANGEL MATIAS FUENTES (FRUT.)	2.035 €	508,75
JON SANTOS MARTIN	125 €	31,25
GUZTIRA	33.570 €	8.392,50

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da

XII.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei seigarren ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	295 €	126,43
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	95 €	40,71
AITOR IZTUETA BARANDIARAN	305 €	130,71
IKER SUKIA MESAS	320 €	137,14
IZTUETA ELKARTEA SC	945 €	405,00
EUXEBIO GARMENDIA ALTUNA	230 €	98,57
ASIER MUXIKA ZUBIARRAIN	210 €	90,00
GUZTIRA	2.400 €	1.028,57 €

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

Lazkaoko Baserritarren Tresna Elkarteari.-

2024ko Udal aurrekontuan aurreikusitako 3.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren 471.01.412.00 partidatik egingo da.

Antsoategi Elkarteari.-

2025eko urtarrilaren 12an ospatuko den Astotxo egunaren baitan, Enkarterrietako astoaren arraza erakusketa eta lehiaketa burutuko da. Ospakizun honen antolakuntza lanei aurre egiteko, Antsoategi elkarteari 4.000 €-ko dirulaguntza aurreratzea.

XIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

XIV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.